

384/2021 EBAZPENA, UZTAILAREN 19KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ARGITARA EMATEN DIREN ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN ZERRENDAK, ETA DEITUTAKO DESTINOEN BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENA EGITEN DEN, OSAKIDETZAKO ZERBITZU SANITARIOEN ERAKUNDEETAN DESTINOA DUTEN FAKULTATIBO MEDIKO TEKNIKOAK LANBIDE-TALDEKO MEDIKUA KATEGORIAKO (FAMILIA MEDIKUNTZAKO FAKULTATIBO ESPEZIALISTA MEDIKOA - LMAT ETA PEDIATRIAKO FAKULTATIBO ESPEZIALISTA MEDIKOA - LMAT LANPOSTU FUNTZIONALAK) LEKUALDATZE-LEHIAKETA IREKIA ETA IRAUNKORRA EZARTZEKO ZIKLOAN.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren abenduaren 26ko 1671/2019 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa deitu zen Fakultatibo Mediko Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian (Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista Medikoa - LMAT eta Pediatriako Fakultatibo Espezialista Medikoa - LMAT lanpostu funtzionalak), (2020ko urtarrilaren 13ko EHAA 7. zk.), Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien arabera.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren abenduaren 11ko 488/2020 Ebazpenaren bidez (abenduaren 22ko 587/2020 Ebazpenaren bidez aldatua), lekualdatze-lehiaketa irekia eta iraunkorra ezartzeko zikloaren destinoen eskaintza argitaratu zen Fakultatibo Mediko Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian (Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista Medikoa - LMAT eta Pediatriako Fakultatibo Espezialista Medikoa - LMAT lanpostu funtzionalak).

Egungo osasun-inguruabarrak kontuan hartuta, ebazpen honen laugarren puntuan jasotako osasun-azterketa egiteko hitzordua emango zaie esleipendunei, eta Giza Baliabideen Zuzendaritzako Prebentzio Zerbitzu Korporatiboak eta Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako prebentzioko oinarritzko unitateek kudeatuko dute.

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren, Osakidetza Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko. Bada, erabaki horren eranskinaren 9.7 d oinarrian ezarritakoarekin bat etorritik, epaimahaiak onartu egin du Fakultatibo Mediko Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategoriako (Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista Medikoa - LMAT eta Pediatriako Fakultatibo Espezialista Medikoa - LMAT lanpostu funtzionalak) destinoen esleipenari dagokion behin-behineko zerrenda, eta Giza Baliabideen Zuzendaritza honi helarazi dio. Hortaz, indarrean dagoen legediak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetzako zuzendari nagusiaren abenduaren 26ko 1671/2019 Ebazpenaren bidez deitutako Fakultatibo Mediko Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategoriako (Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista Medikoa - LMAT eta Pediatriako Fakultatibo Espezialista Medikoa - LMAT lanpostu funtzionalak) destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa irekia eta iraunkorra ezartzeko zikloan onartutako langileen zerrenda onartzea, lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran, ebazpen honen I. eranskinaren bidez.

Bigarrena.– Osakidetzako zuzendari nagusiaren abenduaren 26ko 1671/2019 Ebazpenaren bidez deitutako Fakultatibo Mediko Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategoriako (Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista Medikoa - LMAT eta Pediatriako Fakultatibo Espezialista Medikoa - LMAT lanpostu funtzionalak) destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa irekia eta iraunkorra ezartzeko zikloan baztertutako langileen zerrenda onartzea, baztertzeko arrazoia adierazita, ebazpen honen II. eranskinaren bidez.



Hirugarrena.– Osakidetzako zuzendari nagusiaren abenduaren 26ko 1671/2019 Ebazpenaren I. eranskinean eskaintako lanpostu funtzionalak ezartzeko zikloaren destinoen langile esleipendunen behin-behineko zerrenda argitara dadin agintzea, lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran, ebazpen honen III. eranskinaren bidez.

Laugarrena.– Gizarte Segurantzako erakunde sanitarioetatik edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetatik datozen edo zerbitzu aktiboa ez den beste administrazio-egoera batean dauden langile esleipendunek, III. eranskinean daudenek, osasun-azterketa egin beharko dute, esleitutako destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzeko. Azterketa hori Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuak egingo du, eta, horretarako, esleipendunei hitzordua emango zaie Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzak zehazten duen zerbitzu-erakundearen.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzeko agintzea (www.osakidetza.euskadi.eus).

Seigarrena.– 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 9.7.4. oinarrian ezarritakoaren babesean, ebazpen honen aurka erreklamazioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariari. Horretarako hamar egun balioduneko epea izango da, ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratu (www.osakidetza.euskadi.eus) eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko uztailaren 19an.



Osakidetza
Maria Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Sin.: **Pilar Uriarte Brizuela**
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA